

## Aizpitako interpretazio zentroa



**A**izpitan meatzaritzari buruzko interpretazio zentroa jartzen hasi dira. Eraikuntza bera duela urte batzuk berri baten ere, orain arte hutsik egon da barrutik, interpretazio zentroaren proiektua aurrera eramanean den arte. Behin beharrezko diru-laguntzak lorturik, hasiak dira meatzaritzari buruzko gune hori prestatzen.

Kanpoko profesional batzuk ari dira proiektu hori gauzatzen, baina barruko informazioa ahalik eta osoena izan dadin, ez da nahikoa kanpokoekin egin dezaketena. Itxura onena eman diezaiokete, baina benetako Zeraingo historia, Zeraingo etxe eta familietan dago. Horregatik, Aizpitako interpretazio zentroaren proiektuan, oso garrantzitsua da herritarren kolaborazioa, duela 15 urte museo etnografikoa egin zenean, izan zen moduan. Aizpeko minekin zerikusia izan dezaketen argazkiak,

istorioak, materialak, lanabesak, edo beste edozer gauza bildu nahi dira, interpretazio zentroa ahalik eta gehien osatzeko. Eta hori, Zeraingo etxe eta familietan baino ezin da aurkitu; kanpoko profesionalak ez dute horrelakorik. Hori dela-eta, Zerain Dezagun Fundazioak herritar guztiei dei egin die, ahal duten neurrian, proiektu honetan parte har dezaten. Inork bere etxean argazki, tresna, edo istorioren bat baldin badu, mesedez, jar dadila harremanetan Xabier Dorronsororekin.

Zerainen izan ginenaren beste erakusle bat izango da Aizpitako interpretazio zentroa. Eta Zerainen garapen apusturako beste urrats garrantzitsu bat ere bai. Horregatik, beste behin ere, oso garrantzitsua da herritarren partehartzea. Aizpitako proiektua aberasteko aukera, herritarron esku dago.

Herri-eskola

# Ikasturte berria hasi dugu eskolan

## HERRI-ESKOLA

Irailaren 10ean Zeraingo Herri Eskolakoek ikasturte berria hasi genuen.

Bederatzi ikasle gara: Haizea, Aroa, Adur, Maialen, Eki, Irenia, Aizpea, Josu eta Haitz,

Gure irakasleak Kontxi eta Araitz dira. Ostiral arratsaldetan Agurtzane etortzen da.

*Josu, Aroa eta Maialen*



## AURRESKOLA

Irailaren 6an Haurtzaindegian ikasturte berria hasi zuten.

Orain hiru haur daude: Eneritz, Unai eta Itxaso. Ikasturtean zehar beste haur batzuk hasiko dira.

Haurtzaindegiko hezitzaileak hauek dira: Elena eta Yurrep.

*Maialen, Josu eta Aroa*



## Sakelako telefonoa erabiltzen ikasteko ikastaroa

Adineko pertsonentzat ez da askotan erraza izaten teknologia berriekin ondo konpontzea. Zailtasun horietako bat, telefono mugikorrak manejatzen jakitea da; eta, erraz erabiltzen ikasteko aukera eman nahi du Zeraingo Udalak Kutxaren laguntzarekin. Azaroko arratsalde batean egiteko, hiru orduko ikastaro praktikoa antolatu nahi da. Kutxako bezero direnek 3 euro besterik ez dute

ordaindu beharko. "Telefono mugikorra eta Adineko Pertsona" da ikastaroaren izenburua, eta lehen bailehen, izena ematea komeni da, gutxienez 10eko taldea osatu behar baita.

## Helduen gimnasia

Urriaren 1en hasiko da azken urteetan egiten den bezala helduentzako gimnasia. Iaz bezala, astelehen eta asteazkenetan izango dira gimnasia saioak; arratsaldeko 15:45etik 16:45era. Irakaslea Joakin Elkoro izango da. Apuntatu nahi dutenek udaletxean eman behar dute izena.

Irailaren 8tik 16ra egin da aurten go kultur astea. Larunbatean Aizpeko minetara egindako bisitarekin eta bertso-afariarekin hasi zen. Igandean jubilatuen eguna izan zen. Ondoren astean zehar hitzaldiak egon ziren, eta egunero jende asko joan zen entzutera. Azkenik, igandean, azoka ekologiko jendetsu eta arrakastatsurekin amaitu zen. Kultur astearen laburpen izan nahi duen ale berezia doa XAGUARTEA honetan. Ale berezi horretan, argazki deigarriena ikusi ahalko dituzue.



## Zuatza

Aurreko aste-bukaeran, baserriko produktu naturalen feria-egunean, aparteko aukera izan dugu Zerainen *zuatza* zer den ikusteko: batzuek ikasteko, eta besteek akordatzeko. Baita *zuatza* nola egiten den ikusteko ere. Begiratu, bestela, aldameneko argazkira. Ez zeuden sasoi makalean oraingo eta aurreko alkate biak, Joxe Telleri, Miel Mendartekoa, Juanmari eta konpainia! Eta, batez ere, ez zuten gutxi disfrutatu bospasei mutikok, eskuareekin belarra biltzen eta gero, irribartsu, belarrez kargatutako gurdiaren gainera igota.

Berrogei urtetik gorakoei, edota baserrian bizi diren gazteagoei, itxuragabekoa irudituko zaie *zuatza* (*zuatza* hitza bera, alegia) galtzen ari dela esatea. Eguna baino argiago dago horientzat, hitz horrek zer esan nahi duen. Zeraingo kalean edo etxe bakandu berrietan bizi diren gaztetxoek ba ote dakite, ordea, *zuatza* zer den? Badago aukera polita, konprobazioa egiteko. Eskola-umeei galdetu diezaiekegu (etxean, eskolan edo kalean) *zuatza* zer den. Gehienek, galdera hori egiten bazaie, badakitela erantzungo dute: "*zuatza*-k arbola esan nahi du". Eskolan aurreraxeago doazenez beste hau ere esango dizute: "eta h-rekin eskribitzen da". Bai, *zuhaitzak* "arbola" esan nahi du eta h letraz idazten da gaur egun, euskara batuan. Arrazoi dute horretan. Historian zehar, hots-aldaketa txikiak ageri izan ditu hitz horrek batean eta bestean: leku batzuetan *zuhaitza* dena besteetan *zuaritza* da, edo *zugaitza*, edo *zugatza*, edo *zuraritza*. Esanahi argia dute forma horiek, lehenik eta behin: *arbola*. Horren deribazio semantikorik ere bada tartean: *arbola-enborra* edo *kaina* esan nahi du *zuhaitz*-ak, zenbait lekutan. Beste zenbaitek, berriz, *arbola* mota konkretu bati esaten dio *zuhaitza*: haritz mota bati ("roble bravío" delakoari). Azkenik, beste leku batzuetan (iparraldean) *zuhaina* edo *zuhamua* esaten diote *zuhaitzari*.

Baina ez da hori kontua. Gaur ez gara horretaz ari. *Zuhaitz* hitz hori, esanahi horrekin, badakigu ez dela



galtzen ari: zerbait egitekotan, zabaltzen ari da, *arbola*-ren kaltean. Gernikako *Arbola* kantatu zigun Iparragirrek, ez Gernikako *zuhaitza*. Zer ari da gertatzen, ordea, joan den aste-bukaerako *zuatza*-rekin? Leku beretik etorriko dira esanahi guztiak, seguruenik, baina urteen eta menden joanean bereizi egin dira esanahi batzuek eta besteak. Orain, Zerainen *zuatza* eta beste zenbait lekutan *zugatza*, *suatza*, *sugatza*, *zubatza* edo *subatza* esaten zaion hori beste zerbait da. Hobeto esanik, beste bi gauza: batetik, Beterrin *meta* esaten duguna ("montón de paja en el campo"). Bestetik, *meta* egiteko erdi-erdian, zutik, jartzen den *zuhaitz*-makila ("palo alto y grueso en que forman las metas"). Azken horietatik, hain zuzen, Zerainen joan den aste-bukaeran egin zen *zuatza*-ren esanahiak, gaur aipatu nahi ditugunak. Bi esanahi horiek dira, gure ustez, gaztetxoenen artean galtzen ari direnak.

*Zuatza* egiteko erdian zutik jartzen denari *zuatza*-makila, *zuatza*-ziria edo *zuatza*-zila esaten omen zaio Zerainen. Hala esaten omen diote bertako baserrietan. Kalean bizi diren berrogei urtetik behera zeraindarrek ba ote dute horren berri? Ba ote dakite belarra behar bezala lehortu gabe dagoenean zelaian, edota gurdia kargatu eta kabitu gabe bertan gelditu denari belar multzoari, gaueko ihintza ez hartzeko pilo txikiak eginaz jartzen denari, nola esate

zaion? Elenak garbi adierazi dit nola: *meta*-txorra, *meta* txikia edo *pilo* txikia. Horretan ari direnek orain ere hala esaten omen dute. Nork egiten du ordea metarik edo *zuatza*-ik, traktore-makinaz belar-bolak egiten diren-tik? Horra hitz berria, inori baimenik eskatu gabe gure artean sartu dena: *belar-bola*.



Horrezaz gainera, bestelako informazio ere eman dit Elenak, *zuatza*-aren gainean. Egin aurretik, beheko partean, makilaz edo abarrez *zuatza*-doak jartzen omen zen. Belar lehorra lurreko hezetasunetik gordetzeko egiten omen zen hori. *Belar-bolak* ez du noski halakoren beharrik, eta hitz hori ere galbide biziango da seguruenik. Behar ez diren tresnak ez dira erabiltzen. Erabiltzen ez diren tresnak gero eta gutxiago aipatzen dira, eta azkenean ahazten. Ahaztutako tresnak ez du izenik. Horra beti esan ohi dugun bidea, hitz batzuek galdu eta besteak sortzekoa. Galduz doa *zuatza*-doak, eta gora dator *belar-bola*.

Mikel Zalbide





## Xagu-txoko



Babesetik

ABUZTUA	ast	ast	ast	ost	ost	lar	iga
			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Euria (l/m)			0	0	0	0	0,25
C° altuena			34	29	27	29	36
C° baxuena			25	18	15	15	25
	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>
Euria (l/m)	6	0	1	0	0	0	0
C° altuena	31	20	19	22	23	26	30
C° baxuena	19	16	14	14	14	14	14
	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
Euria (l/m)	0	0	6	5,5	0	0	9
C° altuena	21	25	34	32	20	23	27
C° baxuena	14	18	23	17	12	12	18
	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
Euria (l/m)	3	39	6	24	6	9	0
C° altuena	20	21	16	20	17	22	24
C° baxuena	14	14	14	16	16	17	21
	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>		
Euria (l/m)	0	0,5	2,5	3	0	Gutira: 120,75 l	
C° altuena	31	34	34	22	21	Altuena: 36°	
C° baxuena	25	23	22	16	15	Baxuena: 12°	

## Abuztuan litro dezente

Azkeneko urteetara begira jarriz gero, ez dira abuztu asko izango 138 litro egindakoak. Uztailean, eguraldi bustia eta litro gutxi izan genituen; eta abuztuan kontrakoa: euri-egun gutxiago, baina litro gehiago. Andramari arratsaldean ere majo bota zuen, dantzariak plazan ari zirela. Eskerrak San Roke portatu zen!



## ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA: 2007ko irailaren 1en



Argazkian, Urbiko fondaren aurrean.

## ESKURTSIOA: 2007ko irailaren 22an



Argazkian, Donostiko Kutxaespazioaren kanpoaldean, Zeraingo Jauregiaren maketaren ondoan

## Gripearean txertoa

2007ko txertoaren kanpaina irailaren 24tik urriaren 31ra izango da. Zerainen, ostegunetan hartu ahalko da, goizeko 9:30etatik 10:15era; baina aurrez txanda hartzea komeni da.

65 urtetik gorakoentzat da berez txertoa, baina bihotzeko arazoak, diabetesa, arnasketa gaixotasunak, etab. dituztenei ere jar dezatela aholkatzen die Zeraingo medikuak.

## Silo-bolen plastikoaren bilketa

Silo-bolak egiteko erabiltzen diren plastikoen kurtso berriko kanpaina hasi da. Kurtso honetan, hileko 3. astearteetan bilduko dute plastiko hori. Baina bezperan atera behar da, Udalak prestatutako puntuetara. Hurrengo bilketa urriaren 16an izango da.

## Trikitixa ikastaroa

Trikitixa ikastaroak izango dira aurren, herritar talde batek antolatuta. Inork interesik baldin badu, Jon Etxeberrierekin harremanetan jarri.